

Concierto nº 2520. kontzertua



EUSKADIKO
ORKESTRA

2011-2012

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica de Euskadi

Bilbao

Donostia-San Sebastián
Vitoria-Gasteiz
Pamplona/Iruña

09

Azaroak
noviembre
20:00 h.



EUSKADIKO
ORKESTRA

Euskadiko
Orkestra Sinfonikoa
Andrés Orozco-Estrada,
zuzendari titularra

Testuak / Textos:
Juan Manuel Viana
Argazkiak / Fotos:
Juantxo Egaña

Gaurko kontzertua El concierto de hoy

Tximistargi vienarrak. 1785 eta 1791 urte bitartean (hil zen urtea), Mozartek bere maisulan gailenetako batzuk atera zituen argitara Vienan bizi izan zen garaian. 20. *Kontzertua pianorako*, Beethovenek gustukoen izango zuena, nabariena da biltzen dituen elementu desberdinen lotura hobezinagatik eta darion kutsu aurre-erromantikoagatik. 1788an amaitua, 39. *Sinfonia* obrak urte hartako uda miresgarrian zehar haren katalogo sinfonikoa amaitutzat utzi zuen trilogia handiari ematen dio hasiera. *Flauta miresgarria*-rekin -barkamenaren apologia eta adiskidetasunaren gorazarre musikara eramanez- amalgama zoragarria gehitu zion Mozartek operaren eremuan egin zuen lanari, guztia biltzen duena: umorea eta fantasia, erlijiotasuna eta herrikoitasuna, pasadizo ikargarriak eta nahi humanistak.

Relámpagos vieneses. Entre 1785 y 1791, fecha de su muerte, Mozart alumbró durante sus años de residencia en Viena algunas de sus obras maestras más prodigiosas. El *Concierto para piano* n° 20, que llegaría a ser el preferido de Beethoven, sobresale por la perfecta interrelación de sus distintos elementos y un sugestivo aliento prerromántico. Concluida en 1788, la *Sinfonía* n° 39 inaugura la gran trilogía que, a lo largo del milagroso verano de ese año, clausurará su catálogo sinfónico. Con *La flauta mágica*, apología del perdón y elogio de la amistad en clave musical, Mozart aporta a su legado operístico una fascinante amalgama que lo abarca todo: el humor y la fantasía, lo religioso y lo popular, las peripecias truculentas y las aspiraciones humanistas.



I. Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)

Die Zauberflöte (La flauta mágica), KV 620. Obertura [8']

Concierto para piano y orquesta nº20 en re menor, KV466 [30']

- I. Allegro
- II. Romanze
- III. Rondeau: Allegro assai

II. Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)

Sinfonía nº39 en mi bemol mayor, KV543 [29']

- I. Adagio-allegro
- II. Andante con moto
- III. Menuetto
- IV. Finale: Allegro

Andoni Mercero, kontzertinoa / concertino

Wolfram Christ, zuzendaria / director

Judith Jáuregui, pianoa / piano

Euskadiko Orkestra
Orquesta de Euskadi

Babeslea / Patrocina:

EL CORREO





I

Die Zauberflöte (La flauta mágica), KV620. Obertura

Wolfgang Amadeus Mozart

Salzburgo, 27 de enero de 1756 – Viena, 5 de diciembre de 1791

Vienako Theater auf der Wieden-en 1791ko irailaren 30ean ezagutzera emana, hau da, egilea gazte hil aurretik bi hilabete lehenago gutxi gorabehera, *Flauta miresgarria* obra gogoangarria da zeharo, Mozartek antzerki arloan egindako ibilbidean ez ezik genero berezi batean ere –*Singspiel* izenekoa, alemanez abestuta hitzezko pasarte ugari eta ia beti argumentu komikoak biltzen dituen pieza eszenikoa–, ondoren, egun hartatik hainbesteko inspirazio eta sakontasun maila lortuko ez zuena.

Flauta miresgarria obraren konposizioa 1791ko maiatzean hasi zuen Mozartek. Uztailean eten zuen lan hura *Titoren errukitasuna* ustekabez eskatu ziotenean. Hala, Salzburgoko musikariak irailaren 28an amaitu zuen partitura, estreinatu baino bi egun lehenago. Azkeneko *Singspiel*-en, Mozartek lehen aldiz aurre egin zion *Zauberopern* direlakoan unibertso kezka-garriari, *Maschinekomödie* zaharren ondorengo izandakoei, eta Vienako publiko xumeak hain gustuko zituen horiei. Obra honetan Mozartek landutako generoen nahaste bereziak oso bestelakoak diren osagaiak batzea lortzen du: komikoak eta poetikoak, alegiazkoak eta errealistak, filosofikoak eta erlijiosoak. *Flauta miresgarria*n batere nabarmendu gabe elkar hartzen dute *Lied* herrikoiak, komedia bufoaren arrastoei, opera serioaren oroitza-

Dada a conocer en el Theater auf der Wieden vienes el 30 de septiembre de 1791, es decir, poco más de dos meses antes de la temprana muerte de su autor, *La flauta mágica* señala un hito incontestable no solo en la carrera teatral de Mozart; también en la de un género, el *Singspiel* (pieza escénica cantada en alemán con abundantes pasajes hablados y argumento casi siempre cómico), que nunca después de aquella fecha alcanzaría cotas de inspiración y profundidad semejantes.

Mozart inició la composición de *La flauta mágica* en mayo de 1791. Suspendida la tarea en el mes de julio para poder acometer el inesperado encargo de *La clemencia de Tito*, el músico salzburgués concluyó la partitura el 28 de septiembre, tan solo dos días antes de su estreno. En su último *Singspiel*, Mozart se enfrenta por primera vez al universo intrigante de las *Zauberopern*, herederas de las viejas *Maschinekomödie*, tan del gusto del público llano vienes. La singular amalgama de géneros practicada por Mozart en esta obra maestra logra conciliar los elementos más dispares: cómicos y poéticos, fabulosos y realistas, filosóficos y religiosos. En *La flauta mágica* conviven sin estridencias el *Lied* de tono popular, las huellas de la comedia bufa, el recuerdo de la ópera seria, el hieratismo de la tragedia lírica e incluso la severidad del

penak, tragedia lirikoaren hieratismoak, baita eliz erreperitorioaren zorroztasunak ere, biltzen dituen hainbat eta hainbat sinbologien kutsu masoniko nabaria ahaztu gabe. Beethovenek eta Wagnerrek hainbeste miretsitako *Flauta miresgarriak* haxe biltzen zuen Busoniren hitzetan “liluratzten duen musika, edo, hobe esanda, guztia blaitu eta dena barnean hartzen duena”.

Sotiltasuna darion izenetik hasita, *Flauta miresgarriaren* oberturan 3 zenbakia da nagusi: kutsu masonikoa dario eta partitura osoaren egitura osatzen du. Aurreneko atalean (*Andante*), hasierako goranzko hiru akordeen ondoren, tronboiek jotako fanfarre arranditsu modura eta Sarastoren apaiz mundua gogora ekarriz, motibo fugatu alaia dator (*Allegro*), Clementi-
ren gaia batekin bat etorritz, eta ekintzan zehar protagonistek aurre egin behar izango dieten probak aditzera emanaz. Hasierako akordeak berriro gogor agertu eta gero, motibo fugatuak izango dituen aldaketek, beti aldakor ageri den instrumentazioak azpimarratutakoek, erabateko nortasuna ematen diote obertura honi, Kunzeren arabera “Vienako klasizismoaren mugimendu bizienetakoa” izanik.

repertorio eclesiástico, sin olvidar el evidente trasfondo masónico de muchas de sus simbologías. Admirada incondicionalmente por Beethoven y Wagner, *La flauta mágica* contenía para Busoni “una música que fascina, o, mejor dicho, que empapa todo y todo lo abarca”.

Ya desde su noble enunciado, en la obertura de *La flauta mágica* domina la cifra 3, de clara connotación masónica, que conformará la estructura de toda la partitura. En la primera sección (*Andante*), a los iniciales tres acordes ascendentes, a modo de solemne fanfarria encomendada a los trombones y evocadora del universo sacerdotal de Sarastro, sigue un animado motivo fugado (*Allegro*), emparentado con un tema de Clementi, que representa las pruebas a las que deberán enfrentarse los protagonistas durante el transcurso de la acción. Tras la severa reaparición de los acordes iniciales, las modificaciones a que es sometido el motivo fugado, subrayadas por una instrumentación siempre cambiante, confieren toda su personalidad a esta obertura que, en palabras de Kunze, constituye “uno de los movimientos más ingeniosos del clasicismo vienés”.

Concierto para piano y orquesta nº20 en re menor, KV466

Wolfgang Amadeus Mozart

Salzburgo, 27 de enero de 1756 – Viena, 5 de diciembre de 1791

1785eko aurrenetako hilabeteek Mozartek Vienan hartu zuen ospearean gailurra adierazten dute, bai konpositore gisa bai pianista gailen gisa. Salzburgoko musikariak emandako era guztietako kontzertuek (pribatuak, eskariz, akademikoak) eta Vienako publikoak irrikaz esperotako berritasunek jarraitzaileen jakin-mina asetzeko obra berriak sortzera bultzatu zuten. Hala jaio ziren, hilabete eskas bateko tartean, Mozarten kontzerturako bi obra gailenetakoak, pianora zuzenduak: *Kontzertua re minorrean, KV 466*, otsailaren

Los primeros meses de 1785 contemplan el apogeo de la reputación de Mozart en Viena, tanto en su faceta de compositor como en la de virtuoso del piano. Los conciertos de todo tipo (privados, por suscripción, academias...) que el músico salzburgués ha de afrontar y la inagotable sed de novedades del público vienés propician la creación de nuevas obras con las que satisfacer la curiosidad de los aficionados. Nacen así, a un mes escaso de distancia, dos de las más indiscutibles cumbres concertantes mozartianas destinadas al teclado: el *Concierto*

10ean amaitua, eta *Kontzertua do maiorrean*, KV 467, Mozartek martxoaren 9an amaitua.

Leopold Mozartek, Salzburgotik Vienara haren semeak *Kontzertua re minorrean* bukatu zuen egun berean iritsiak, une loriatsu bezain iragankorraren frogaz izango zenaren testigantza ematen digu. Haren alaba Nannerli idatzitako eskutitz batean, otsailaren 16an datatuan, Wolfgangek zuen etxea eta bertako altzariak gorestean gainera, hauxe dio: “Ostiralean zehazki [otsailak 10], arratsaldeko seietan, harpidetzazko bere aurreneko kontzertura joan ginen eta bertan noble ugari bildu ziren. [...] Kontzertua gogoangarria izan zen, orkestra bikaina eta sinfonieiz gain italiar antzerkiko abeslari bati entzun genion, bi aria abestu zituen bati. Ondoren, Wolfgangek pianorako kontzertu berri eta zoragarri bat eskaini zuten, eta bertan kopistak lanean jarraitzen zuen oraindik, iritsi ginenean, eta zure anaiak ezin izan zuen rondoa jo, kopia gainbegiratzeko astirik ere izan ez zuelako”. Harro, jakina, Haydn-ek Mozarti zuzendutako goraipamenak aipatzen ditu: “Esan beharra daukat, Jainkoaren aurrean, ohorezko gizona den aldetik: zeuen semea ezagutzen dudak konpositore handiena da, zuzenean edo ize-nez. Gustu handikoa da, baita konposiziorako trebetasun handikoa ere”.

Mozartek minor tonaltatean idatzitako aurreneko kontzertua, KV 466, gailentzeaz gainera harriztasun uztan gaitu, hasierako *Allegro* luze-luze horretako aurrenetako konpas erakargarrietatik, darion kutsu asaldatu eta goibelagatik, *Don Giovanniren* ondorengo oberturarekin bat etorriz –tonalitate berean idatzia–. Beethovenen halako suhertasuna, orkestraren *tutti* horiena, erritmo garratza, kontraste dinamikoen indar dramatikoa eta sarritan gatazkatsu ageri diren bakarlarien eta orkestraren arteko elkarriketak Mozartek proposamen instrumental honetarako ordura arte lortutako horretatik askoz ere harago doaz mugimendu honetan. Aitzitik, erdiko *Erromantzak* ametsezko halako giro batean murgiltzen dela dirudi, hasiera batean pianoak xuxurlatutakoan eta gero orkestrak errepikatutakoan. Bitarteko pasarte asaldatu batek bakarrik –patetismo sakonekoa eta bakarlariaren pultsazio kezkagarriak nabarmendutakoa– eteten du mugimenduaren

en re menor, KV 466, concludido el 10 de febrero, y el *Concierto en do mayor*, KV 467, que Mozart finaliza el 9 de marzo.

Leopold Mozart, llegado a Viena desde Salzburgo el mismo día en que su hijo pone fin a su *Concierto en re menor*, nos aporta el testimonio fehaciente de este efímero momento de gloria. En carta a su hija Nannerl, fechada el 16 de febrero, además de alabar las bondades de la casa y del mobiliario de que disfruta Wolfgang, comenta: “El viernes en cuestión [10 de febrero] fuimos, a las seis de la tarde, a su primer concierto por suscripción, en el que se dieron cita numerosos representantes de la nobleza. [...] El concierto fue incomparable, la orquesta excelente y además de las sinfonías se escuchó a una cantante del teatro italiano que cantó dos arias. Luego siguió un nuevo y soberbio concierto para piano de Wolfgang, en el que el copista aún seguía trabajando cuando llegamos y del que tu hermano no pudo tocar el rondó porque ni siquiera tuvo tiempo de repasar la copia”. Al tiempo que, visiblemente orgulloso, cita los elogios prodigados por Haydn hacia Mozart: “Os lo digo, delante de Dios, como hombre de honor: vuestro hijo es el compositor más grande que conozco, en persona o de nombre. Tiene gusto y también la más grande ciencia para la composición”.

Primer concierto escrito por Mozart en una tonalidad menor, el KV 466 sobresale (y sorprende), desde los primeros arrebatadores compases de su amplísimo *Allegro* inicial, por su clima exaltado y sombrío que lo emparenta con la futura obertura de *Don Giovanni*, escrita en la misma tonalidad. La vehemencia, casi beethoveniana, de los *tutti* orquestales, su incisividad rítmica, la fuerza dramática de sus contrastes dinámicos y el carácter a menudo conflictivo de los diálogos entre solista y orquesta van, en este movimiento, mucho más allá de lo alcanzado hasta entonces por Mozart para esta misma propuesta instrumental. Por el contrario, la *Romanza* central parece sumergirse en una velada atmósfera de ensoñación, murmurada primero por el teclado y repetida luego por la orquesta. Sólo un agitado episodio intermedio, de profundo patetismo y marcado por la inquietante pulsación del solista, interrumpe el ambiente

giro idilikoa, berriro ere azkeneko atalean berriro heldutakoa. Obraren hasierako giro bortitza berriro sumatuko dugu azkeneko *Allegro assai* asaldatuan, mugimendu laburrena izanik. Gai nagusiaren kemena, pianoak aurkeztua eta orkestrak bildutakoa, kontrastez betetako rondo honen diskurtsoan gailentzen da, bozkariozko koda batean amaitzeraino. Massinek dioten bezala, “amaierako pasarte honetan azkeneko momentuan sarraldia egiten duen gaia, bukarari giro alaia eskainiz, garaipenezko garrasia da zeharo”.

Ez da harritzekoa kontzertu gogoangari hau, 1796ra arte ezagutzera eman ez zena, kolorez bete eta, nolabait esateko, aurre-erromantikoa, Beethovenek gustukoen zuena izatea, bai hasierako bai bukaerako mugimenduetara zuzendutako bi kadentzia bikain idatzi zituenak.

idílico del movimiento, retomado de nuevo en su sección conclusiva. La atmósfera febril del comienzo de la obra regresa en el tempestuoso *Allegro assai* final, su movimiento más breve. El ímpetu del tema principal, expuesto por el piano y recogido por la orquesta, domina el discurso de este rondó repleto de contrastes que corona una exultante y afirmativa coda. Como apuntan los Massin, “el tema que tardíamente hace irrupción en este último fragmento, imponiendo una conclusión alegre, tiene todo el valor de un grito triunfal”.

No puede extrañar que este concierto memorable, inédito hasta 1796 y de coloración, diríase, prerromántica, fuera el preferido de Beethoven, que escribió dos formidables cadencias destinadas a sus movimientos extremos.



Sinfonía nº39 en mi bemol mayor, KV543

Wolfgang Amadeus Mozart

Salzburgo, 27 de enero de 1756 – Viena, 5 de diciembre de 1791

Mozartek berak bere katalogo pertsonalean idatzitakoaren arabera, 39. *Sinfonia* 1788ko ekainaren 26an geratu zen amaituta. Hortaz, urte hartako uda miragarrian, KV 550 (uztailak 25) eta KV 551 (abuztuak 10) obrekin batera bere katalogo sinfonikoa amaitu eta koroatzen duen trilogia nagusiaren barnean sartzen da.

Konposizio hauen guztien sorrerari buruz zalantza handiak egon arren, litekeena da musikariak, bai familiari dagokionez bai diru aldetik ondo ez zebilela jakinda, harpidetazko kontzertu sailen batean (“akademiak” deitutakoak) interpretatzeko idatzi izana, edo, ohi zenez, hiru (edo sei) ziklotan idatzita edo inprimatuta partiturak saltzeko edota Alemaniari edo Ingalaterratik kontzertu bira bat egiteko asmoz, hainbeste miresten zuen Joseph Haydn lagunak hiru urte geroago arrakasta handiz egin zuen bezala. Dena dela,

Según anotación del propio Mozart en su catálogo personal, la *Sinfonía nº 39* quedó concluida el 26 de junio de 1788. Se trata, por tanto, de la primera de las obras que integran la gran trilogía que, a lo largo del milagroso verano de ese año, clausura y corona a la vez, en compañía de las KV 550 (25 de julio) y KV 551 (10 de agosto), su catálogo sinfónico.

Aunque la incertidumbre planea sobre la gestación de todas estas composiciones parece probable que el músico, que atravesaba entonces por circunstancias poco afortunadas tanto en lo familiar como en lo económico, las escribiera con destino a su interpretación en alguna serie de conciertos por suscripción (las llamadas “academias”), o bien con intención de vender las partituras, manuscritas o impresas, por ciclos de tres (o seis) como era costumbre, o quizá incluso con vistas a una gira de con-

ezin dugu ziurtatu, esanak esan, Mozartek azkeneko partitura hauetako konpas bat ere inoiz entzun ez zuenik. Aitzitik, ziurrenez, obra hauetako batzuk Mozartek eta Karl Lichnowsky printzeak 1789ko apirila eta ekaina bitartean Praga, Dresde, Leipzig, Berlin eta Frankfurtetik egindako bidaian eman ziren ezagutzera.

Aurreko sinfonia ez bezala (38. Sinfonia “Praga”, KV 504), 39. Sinfonia *mi bemol maiorrean* ohiko lau mugimenduetan dago banatuta, Haydnen 84. Sinfoniarik dagokion eskema formalari jarraituz. “Linz” sinfonietan edo aipatutako “Praga” sinfonian bezala, sarrera geldo bat, *Adagio* markatua, entzuten da ondoren datorren *Allegroaren* aurretik. Zain edukiko gaituen atariko arranditsu honen izaera zeremoniatsu eta enigmatiko honek –geldiro gorantz doana ilunpetik argirantz, halako obertura barroko kutsuarekin, frantses erara, eta opera seriokoa– baliteke ñabardura masonikoak agerian uztea. Bi gaik taxutzen dute aipatutako *Allegroa*, ezaugarri zainduak dituen eta bai Berliozek bai Schumannek apolineotzat hartu zutena: epela eta sentsuala lehena eta kontrastatua haize instrumentuen eta biolinen interbentzioetan bigarrena. Rondo egitura duen marxa estilizatu baten antzera, *Andante con moto* gailendu egiten da darion lirismo bare eta eutsiagatik. Kontrapuntuen fintasuna eta espresibotasun nabaria dira nagusi iragarpen ilunez betetako diskurtsoan. Gorte girokoa eta aurreneko *Allegroaren* erritmoak gogora ekarri, bizitasun handiko *Menuettoak (Allegretto)* alde batera uzten ditu aurreko mugimenduen ilunabarreko argiak. Oso kontrastatua, erdiko trioak klarineteen tinbre erakargarriari ematen dio bide –gogoan izan obra interpretatzen duten instrumentuen artean ez dagoela oboerik– *Ländler* austriar estilizatu baten moduko gaia jo dezan, urte batzuk geroago Schubertek konposatutako halako landa giroko obra xarmagarriak iragarriko balitu bezala. Haydnen bukaerako mugimenduen izaera bihurria *Finale: Allegro* zoragarri eta bizitasun handikoan iradokitzen da. Mugimendu iraunkor antzeko bat da, kontrapuntuen dagokienez joria, eta haize instrumentuen interpretazio mamitsuak eta ironikoak barnean hartzen dituen.

ciertos por Alemania o Inglaterra, como haría tres años después con gran éxito su admirado amigo Joseph Haydn. En todo caso no puede asegurarse, contra lo que testimonia la leyenda, que Mozart jamás escuchara ni un solo compás de estas partituras finales. Por el contrario, no parece improbable que alguna de estas obras se diera a conocer durante el viaje emprendido por Mozart y el príncipe Karl Lichnowsky entre abril y junio de 1789 que les llevó hasta Praga, Dresde, Leipzig, Berlín y Fráncfort.

A diferencia de la sinfonia precedente (la nº 38 “Praga”, KV 504), la Sinfonia nº 39 *en mi bemol mayor* se distribuye en los habituales cuatro movimientos, siguiendo el esquema formal de la Sinfonia nº 84 de Haydn. Como en las sinfonías “Linz” o en la citada “Praga”, una introducción lenta, marcada *Adagio*, precede la llegada del *Allegro* subsiguiente. El carácter expectante, ceremonioso y enigmático de este solemne prólogo –suerte de lenta ascensión desde las tinieblas hacia la luz, con ecos de obertura barroca a la francesa y de ópera seria– revela probablemente connotaciones masónicas. Dos temas elaboran el citado *Allegro*, de velados perfiles y que tanto Berlioz como Schumann calificaron de apolíneo: cálido y sensual el primero y contrastado en las intervenciones de vientos y violines el segundo. A la manera de una marcha estilizada con estructura de rondó, el *Andante con moto* sobresale por su lirismo sereno y contenido. La finura contrapuntística e intensidad expresiva dominan un discurso cargado, en su sección más animada, de oscuros presagios. De atmósfera cortésana y con reminiscencias rítmicas del primer *Allegro*, el brioso *Menuetto (Allegretto)* abandona las luces crepusculares del movimiento anterior. Muy contrastado, el trío central confía al seductor timbre de los clarinetes –recuérdese que la plantilla instrumental de la obra carece de oboes– un tema a modo de estilizado *Ländler* austriaco que parece prefigurar el encanto irresistible de ciertas atmósferas rústicas que años después firmará Schubert. El espíritu travieso de los movimientos conclusivos haydnianos se evoca en el delicioso y vital *Finale: Allegro*. Una especie de movimiento perpetuo, de gran riqueza contrapuntística, que alberga jugosas e irónicas intervenciones de los instrumentos de viento.

**Musika
argudio**
La música
como
pretexto

"*Flauta miresgarria* oso gustuko dute hurrek,
hunkitu egiten ditu helduak eta zoratu egiten
ditu jakitunak.

La flauta mágica encanta al niño, conmueve al
hombre maduro y entusiasma al sabio."

A. Einstein

"*KV 543 Sinfonia* baliteke enigmatikoena izatea,
patetismoaren eta heroismoaren, giro bukolikoen
eta tonu dramatikoaren erdibidean.

La Sinfonía KV 543 es tal vez la más enigmática,
fluctuando del patetismo al heroísmo, de las
atmósferas bucólicas a los tonos dramáticos."

L. Della Croce

**Gure
iradokizun
diskografikoa**
Nuestra
sugerencia
discográfica

W. A. Mozart:

La flauta mágica. Obertura

Academy of Saint Martin-in-the-Fields.
Zuz./Dir.: Neville Marriner. EMI, 1981.

Concierto para piano nº 20

Christian Zacharias, piano.
Orquesta Sinfónica de la Radio Bávara.
Zuz./Dir.: David Zinman. EMI, 1989.

Sinfonía nº 39

Orquesta de Cámara Escocesa.
Zuz./Dir.: Charles Mackerras. Linn, 2008.




Wolfram Christ

zuzendaria / director

www.wolframchrist.de

Wolfram Christ, nazioarte mailan ezaguna den biolajotzailea, zuzendaritza aritu da azken urteotan. Berlingo Orkestra Filarmonikoan biola bakarlaria izan zen hogei urtetik gora eta 60 kontzertu baino gehiago eskaini zituen bakarlari gisa Karajan, Abbado, Maazel edo Haitink maisuen zuzendaritzapean. Fribourg-eko Musikhochschule-n biola irakasle, 2005an Ferrara eta Potenzako Gustav Mahler Musika-akademiatako zuzendari artistiko izendatu zuten. Sortu zenetik Lucernako Jaialdiko Orkestrako kide eta 1995tik 2000ra Sidneyko Musika Kontserbatorioko zuzendari artistiko izana, hainbat urtetan Durban-eko Orkestra Filarmonikoa eta Trevisoko Trevigiano Orkestra zuzendu izan ditu. 2004 eta 2008 urtea bitartean Mannheim-eko Kurpfälzisches Kammerorchester-eko titular izana, azken urteotan Copenhagueko Danier Errege Orkestra eta Basilea eta Municheko Ganbera-Orkestrarekin zuzendari-gonbidatu gisa aritu da. 2009-2010 denboralditik Stuttgarteko Ganbera-Orkestrako zuzendari printzipal gonbidatua da.

Wolfram Christ, viola de reputación internacional, se dedica en los últimos años a la dirección. Con la Filarmónica de Berlín, donde fue primer viola durante más de 20 años, ha ofrecido más de 60 conciertos como solista bajo las batutas de Karajan, Abbado, Maazel y Haitink, entre otros. Profesor de viola en la Musikhochschule de Friburgo, fue nombrado en 2005 director artístico de las Academias de Música Gustav Mahler de Ferrara y Potenza. Miembro fundador de la Orquesta del Festival de Lucerna y director artístico del Conservatorio de Música de Sydney entre 1995 y 2000, ha dirigido durante varios años a la Filarmónica de Durban y a la Orquesta Trevigiano de Treviso. Titular de la Kurpfälzisches Kammerorchester de Mannheim entre 2004 y 2008, ha actuado en los últimos años como invitado con la Real Orquesta Danesa de Copenhague y las orquestas de cámara de Basilea y Múnich. Desde la temporada 2009-2010, es principal director invitado de la Orquesta de Cámara de Stuttgart.



pianoa
piano

Judith Jáuregui

1985ean Donostian jaioa, gure herrialdeko interprete gailenatariko bat bihurtzera deitua dago Judith Jáuregui. Donostiako Kontserbatorioan eskuratu zituen pianoko goi mailako titulua eta karrerara amaierako ohorezko saria, Cristina Navajas-en katedran. Beranduago bere ezagutza sakondu zuen Salamancako Goi Mailako Kontserbatorioan, Claudio Martínez-Mehner-ekin, eta Municheko Richard Strauss Kontserbatorioan, Vadim Suchanovekin. Jaso dituen sarien artean, aipagarriak dira Valladolideko VIII. Frechilla-Zuloaga Nazioarteko Saria eta XXII. Pianojotzaile Gazteentzako Albacete Hiria Lehiaketan eskuratutako Chopinen musikaren interpretazio onenari saria eta Espainiar musikaren interpretazio onenari saria. Bakarlari gisa, Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Orkestrarekin egin zuen debuta eta ondoren Hessengo Gazte Orkestrarekin (Alemania) eta Gaztela eta Leongo Orkestrarekin aritu zen. Disken alorrean, nabarmentzekoa da duela gutxi Schumannen lanaren inguruan kaleratutako grabaketa (Columna Música).

Nacida en San Sebastián en 1985, Judith Jáuregui está llamada a convertirse en una de las grandes intérpretes de nuestro país. Obtuvo el título superior de piano y el premio de honor de fin de carrera en el conservatorio de su ciudad natal, en la cátedra de Cristina Navajas. Más tarde amplió su formación en el Conservatorio Superior de Salamanca con Claudio Martínez-Mehner y en el Richard Strauss de Múnich con Vadim Suchanov. Entre sus galardones destacan el VIII Premio Internacional de Piano Frechilla-Zuloaga de Valladolid y el XXVII Concurso para Jóvenes Pianistas Ciudad de Albacete, donde recibió además el Premio a la Mejor Interpretación de Música de Chopin y el Premio a la Mejor Interpretación de Música Española. Debutó como solista junto a la Orquesta del Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, a la que siguieron la Joven Orquesta del Estado de Hessen (Alemania) y la Orquesta Sinfónica de Castilla y León. En el campo discográfico destaca su reciente grabación dedicada a Schumann (Columna Música).

www.judithjauregui.com

**Hurrengo
abonu
kontzertua**
Próximo
concierto
de abono

Azaroak
Noviembre

30

Paper birzikletua / papel reciclado



Euskadiko Orkestraren berri
izan nahi baduzu, jar zaitez
gurekin harremanetan edo
izena eman gure webgunean
EUSKOR buletin digitalean.

Si quieres estar al día en lo que
a la Orquesta se refiere, ponte
en contacto con nosotros o
suscríbete en nuestra web al
boletín digital EUSKOR.

943 01 32 32

www.euskadikoorkestra.es

Miramón Pasealekua, 124
20014 Donostia-San Sebastián



Andrés Orozco-Estrada

Zuzendaria / Director

Ana Quintans

Sopranoa / Soprano

Ida Aldrian

Mezzosopranoa / Mezzosoprano

José Luis Sola

Tenorea / Tenor

Klemens Sander

Baritonoa / Barítono

**Coral Andra Mari
Abesbatza**

(Zuzendaria/Director: José Manuel Tife)

F. Schubert: Misa nº5

C. Saint-Saëns: Sinfonía nº3

**Sarrerren
salmenta**

**Venta de
entradas**

bbk=

BBKren orotarako kutxazainetan
En los cajeros multiservicio de BBK

944 310 310

www.bbk.es

Palacio EUSKALDUNA Jauregia
Leihatila / Taquilla: Tel.: 902 54 05 39

Ordutegia / Horario: 17:00 - 20:00

Kontzertu egunetan, halaber, 12:00etatik 14:00etara.
Los días de concierto, también de 12:00h a 14:00h.

www.euskadikoorkestra.es